

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2024ko urria

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Gizarte Segurantzako afiliazioa
3. Langabezia erregistratua
4. Inflazioa
5. PMI konposatua
6. ELGaren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %1,8 hazi zen bigarren hiruhilekoan.

Zerbitzuen balio erantsia %2,3 handitu zen, aurreko bi hiruhilekoen antzera.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,3 handitu zen irailean.

Ikasturtearen hasierak bide eman zuen abuztuan galdutako afiliatioetako asko berreskuratzeko.

3. Langabezia erregistratua zertxobait igo zen irailean.

Gehikuntzak eragin handiagoa izan zuen emakumeengan eta gazteengan.

4. Euskadiko KPIa hiru hamarren jaitsi zen abuztuan.

Elikagaiak igoera leundu zuten, baina zerbitzuek erresistentzia nabarmena eskaintzen dute.

5. Euroaren eremuko jarduera ekonomikoa murriztu egin zen irailean.

PMI konposatua 48,9an kokatu zen, azken zortzi hilabeteetako mailarik baxuenean.

6. ELGaren arabera, munduko ekonomiaren hazkundera %3,2 izango da.

2024ko datua hamarren bat goratu du eta 2025ekoa bere horretan utzi du.





EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko ekonomia %1,8 hazi zen bigarren hiruhilekoan

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2. HIRUHILEKOA

%1,8




Eustatek argitaratu berri duen informazioaren arabera, 2024ko bigarren hiruhilekoan EAEko ekonomia %1,8 hazi zen urte arteko tasan, lehen hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Hiruhilekoko BPGaren bilakaerak erakusten du azken aldietan moteltze txiki bat gertatu dela. Eustatek argitaratutako datua Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspenetik oso gertu dago, bigarren hiruhilekorako %1,9ko igoe-ra aurreikusten baitzuen.

Eskariaren ikuspegitik, barne eskariaren sendotasuna nabarmendu behar da, kanpo saldoak, berriz, portaera neutroa erakutsi zuen bitartean, esportazioen (%2,1) eta inportazioen (%2,0) urte arteko aldakuntza tasak oso antzekoak izan baitziren. Bestalde, kontsumo pribatuak (%1,7) eta kapital eraketa gordinak (%1,6) hazkunde nabarmenak jaso zituzten. Azkenik, kontsumo publikoa %2,2 handitu zen.


KONTSUMO PRIBATUA

Urte arteko aldakuntza tasa




KONTSUMO PUBLIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa




INBERTSIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA


Urte arteko aldakuntza tasa



Produktzio sektoreen ikuspegitik, EAEko ekonomia-aren indarra zerbitzuen sendotasunean oinarritzen da, zerbitzuen balio erantsia modu egonkorrean handitzen baita, %2,3 inguruko erritmoan. Merkataritza, ostalaritza eta garraio taldea suspertu egin da, administrazio publiko, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuen taldea bezala, eta gainerako zerbitzuek dezelerazio irudia erakusten dute, tonu dinamikoa mantentzen duen arren. Beste aldetik, industriak %0,4 bakarrik lortu zuen bere balio erantsia handitzea.


INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,3 handitu zen irailean


Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,3 egin zuen gora irailean, eta milioi bat afiliazio ko maila berreskuratu zuen berriro. Hobekuntza txiki bat hautematen da abuztuan erregistratutako urte artekoarekiko (%1,1), ikasturtea amaitzeak hein batean baldintzatu baitzuen. Irailean, ikasturte berria hastearekin batera, hezkuntza sektoreko afiliazioak ia 5.500 gehitu ziren, eta urrian gainerako afiliazioak berreskuratzea espero da.

Sexuaren araberako analisisian, iraileko hobekuntza bereziki emakumeen afiliazioetan nabari da, %1,5 hazi baitziren, hau da, aurreko hilean baino hiru hamarren gehiago, neurri handi batean irakaskuntzaren sektorean duten partaidetza oso handia delako. Bestalde, gizonen afiliazioa %1,1 handitu zen urte batetik bestera, abuztuan lortutako tasa baino hamarren bat gehiago.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

IRAILEKO AFILIAZIOA
%1,3




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreen araberako bilakaerak erakusten du zerbitzuetan gorakada izan dela, urte arteko hazkunde tasa %1,6 izan baitute, baina industrian (%0,7) eta eraikuntzan (%0,5) ere afiliazioak gora egin du. Jarduera adarren arabera, afiliazioak nabarmen egin zuen gora hezkuntzan

(2023ko hilabete berean baino ia 3.000 afiliazio gehiago), osasunean (2.000 baino gehiago), ostalaritzan (1.766) eta jarduera profesionaletan (1.612). Aitzitik, lehen sektorean 1.000 afiliazio baino gehiago galdu ziren, neurri batean aurtengo mahats bilketaren atzerapenagatik.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2023ko iraila	2024ko iraila	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	994.992	1.007.609	12.616
Industria manufakturagileak	173.815	174.898	1.083
Merkataritza	135.283	135.687	404
Osasun arloko jarduera	115.442	115.442	2.071
Hezkuntza	71.986	74.954	2.967
Administrazio jarduerak	69.908	70.699	792
Ostalaritza	68.475	70.241	1.766
Lanbide jarduerak	61.764	63.376	1.612
Eraikuntza	58.260	58.535	275
Administrazio publikoa	51.338	51.774	436
Garraioa	45.491	46.488	997
Etxeko langileak	29.000	28.137	-863
Informazioa eta komunikazioa	27.027	28.014	988
Bestelako zerbitzuak	25.892	25.813	-79
Jarduera artistikoak	17.358	17.996	638
Finantza jarduerak	16.857	17.235	378
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	13.752	12.701	-1.051
Ur horniketa	6.653	6.813	159
Higiezin jarduerak	4.336	4.362	26
Energia horniketak	1.743	1.766	22
Erauzketa industriak	532	520	-11
Lurraldez kanpoko erakundeak	79	87	8

Iturria: Gizarte Segurantza.



**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**



LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Langabezia erregistratua zertxobait igo zen irailean

Erregistratutako langabeziak gora egin zuen berriro irailean (%1,2), eta, beraz, lau hilabetez jarraian handitu da. Hala ere, lan merkatuaren portaera pixkanaka hobetzen joan zen, hazkunde erritmoa murriztu egin baitzen aurreko hilabeteen aldean. Zehazki, Lanbideren bulegoetan 107.996 langabe erregistratu ziren, aurreko ur-


teko hilabete berean baino 1.271 gehiago. Bestalde, kontratazioak bilakaera positiboarekin jarraitu zuen, ia 75.000 kontratu berri sinatu baitziren, baina igoera apalagoa izan zen (%1,3). Era berean, kontratu finkoek beherakada handia izan zuten (-%10,9), eta horrek esan nahi du txandakatzeak gora egin duela nolabait.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. IRAILA

%1,2




LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. GAZTEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Sexuaren arabera erregistratutako langabeziaren bilakaerari dagokionez, gizonekoetan zein emakumezkoetan igo bazen ere, emakumeen artean hazi zen gehien. Zehazki, emakumezkoen langabezia 849 pertsonatan igo zen aurreko urteko hil beraren aldean (%1,4), eta gizonekoen langabezia, berriz, 422 langabetan (%0,9).

LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Era berean, biztanle gazteenei eragin zien gehien langabeziaren bilakaerak (%6,0). Azkenik, langabeziaren hazkunde osoa zerbitzuen sektorean kontzentratu zen (%1,4), zeren eta erai-kuntzak (-%4,1) eta industriak (-%1,2) jaitsierak jaso baitzituzten.

LANGABEAK

	2023ko iraila	2024ko iraila	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	106.725	107.996	1.271
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	18.924	18.152	-772
Bizkaia	59.896	61.379	1.483
Gipuzkoa	27.905	28.465	560
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	44.591	45.013	422
Emakumeak	62.134	62.983	849
25 urtetik beherakoak	8.855	9.386	531
25 urte baino gehiago dutenak	97.870	98.610	740
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	1.780	1.782	2
Industria	10.454	10.327	-127
Eraikuntza	6.147	5.898	-249
Zerbitzuak	75.124	76.157	1.033
Lehenago lan egin dutenak	93.505	94.164	659
Lehenago lan egin ez dutenak	13.220	13.832	612
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	18.603	19.778	1.175


Iturria: SEPE.

INFLAZIOA

Euskadiko KPIa hiru hamarren jaitsi zen abuztuan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Kontsumoko prezioek %2,6ko igoera izan zuten abuztuan Euskadin, iazko uztailetik izandako erregistrorik baxuena baita. Hori horrela izanda, inflazioak hiru hilabetez jarraian gero eta hazkunde txikiagoak izan ditu, batez ere erregaien prezioen jaitsieraren eta, neurri txikiagoan, elikagaien prezioen bilakaeraren ondorioz.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2022	2023	2024ko abuztua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	2,6	2,6
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	3,0	2,5
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	3,9	0,6
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	1,0	0,2
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	3,4	1,7
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	0,9	0,1
- Landu gabeko janariak (%6,5)	10,8	7,3	2,7	0,2
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	-1,0	-0,1

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Beraz, inflazioa pixkanaka hurbiltzen ari da Europako Banku Zentralak ezarri zuen %2ko helburura. Bilakaera horretan esanguratsua izan zen erregaien portaera, Brent upelak 70 dolarretik beherako erregistroak markatu zituelako. Era berean, elikagaiek ere KPIa moteltzen lagundu zuten, %3,6an kokatu baitziren, aurreko hileko erregistroa baino zazpi hamarren behe-

ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



rago. 2021eko azarotik izan den baliorik txikiena da, oinarritzko elikagaiei BEZa jaisteak eta jaitsiera hori olioari ere zabaltzeak, oso garestia baitzen, eragin baitute. Aitzitik, zerbitzuak dira beheranzko erresistentzia handiena erakusten ari direnak, batez ere turismoarekin zerikusia dutenak. Horren ondorioz, kafetegiak eta jate-txeak izan ziren gehien garestitu zirenak (%4,3).

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2024ko abuztua

	Euskadi	Espania	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,6	2,3	2,2
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,6	2,5	1,7
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,8	3,6	5,2
Jantziak eta oinetakoak	1,9	0,7	1,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	4,2	4,0	2,0
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,6	0,5	-0,4
Osasuna	2,8	2,0	3,6
Garraioa	-1,1	-1,3	-0,1
Komunikazioak	-0,2	-0,3	-2,4
Aisia eta kultura	1,4	2,0	2,4
Hezkuntza	2,0	2,8	4,1
Jatetxeak eta hotelak	4,3	4,6	4,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,5	3,2	4,0

Iturria: INE eta Eurostat



PMI KONPOSATUA


Euroaren eremuko jarduera ekonomikoa murriztu egin zen irailean

Irailean, euroaren eremuko PMI indizeak atzera-pausoa eman zuen eta 48,9an kokatu zen, ekonomiaren uzkurdura eremuaren barruan. Azken zortzi hilabeteetako mailarik baxuena da. Indizeak beherantz eraman duen faktorea industria da, bere jarduera berriro okertu eta 44,5eko balioa izan baitzuen, azken bederatzi hilabeteetako minimoa. Bestalde, zerbitzuen indizeak 50,5era arte moteldu zuen bultzada.


Eskaera berriek behera egin zuten, urtarrietik izandako erritmo bizienean gainera. Orobat, enpresen konfiantzak okerrera egin du eta azken hamar hilabeteetako baliorik txarrenea jaso zuen. Horrek guztiak plantillak murriztea ekarri du, bigarren hilabetez jarraian. Hala eta guztiz ere, eskaririk ezak inflazioa moteltzeko balio izan du, bai kostuei dagokienez, bai prezioei dagokienez.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2024KO IRAILA
48,9




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herrialdeen araberako azterketak erakusten du Europako ekonomiaren motorra diren eta gainerako herrialde garatuen portaera ezberdina dela. Izan ere, Alemaniak bere jaitsieran sakondu du eta 47,2ra egin du behera, bere manufakturen emaitza txarragatik (40,5), nahiz eta herrialdeko zerbitzuek ere okerrera egin duten (50,6). Frantziaren kasuan, aurreko hileko igoera handia erabat desagertu da eta 47,4ko balioan geratu da, uzkurdua eremuan industria eta zerbitzuak zeudelarik.

Aitzitik, AEBuek hazkunde sendo (54,4) eta egonkorraren irudia eskaintzen dute, eta Erresuma Batuak, aldiz, emaitza esanguratsua (52,9) erakusten du.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit




ELGA-REN AURREIKUSPENAK

ELGaren arabera, munduko ekonomiaren hazkundera %3,2 izango da

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ELGak munduko ekonomiarako aurreikuspen berriak argitaratu ditu. Erakunde honek uste du hazkundera sendoa izaten ari dela G20ko herrialde askotan, adibidez AEBetan, Brasilen, Indian, Indonesian eta Erresuma Batuan. Alderantziz, Alemania aipatzen du bere ahuleziagatik. Halaber, ondasunen prezioek igoera neurritsuagoak erakusten dituztela adierazi du, nahiz eta zerbitzuetakoek oraindik erresistentziak eskaintzen dituzten. Horregatik guztiagatik, munduko ekonomiaren hazkundera %3,2 haziko dela uste du, bai aurten bai datorren urtean.

ELGAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2023	2024	2025	2024	2025
Munduko ekonomia	3,1	3,2	3,2	0,1	0,0
AEB	2,5	2,6	1,6	0,0	-0,2
Eurogunea	0,5	0,7	1,3	0,0	-0,2
Alemania	-0,1	0,1	1,0	-0,1	-0,1
Frantzia	1,1	1,1	1,2	0,4	-0,1
Italia	1,0	0,8	1,1	0,1	-0,1
Espainia	2,5	2,8	2,2	1,0	0,2
Erresuma Batua	0,1	1,1	1,2	0,7	0,2
Kanada	1,2	1,1	1,8	0,1	0,0
Japonia	1,7	-0,1	1,4	-0,6	0,3
Txina	5,2	4,9	4,5	0,0	0,0
India	8,2	6,7	6,8	0,1	0,2
Brasil	2,9	2,9	2,6	1,0	0,5


AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Herrialdeka egindako analisiaren arabera, datorren urtean euroguneko hazkunde erritmoa AEBetako ekonomiara asko hurbilduko da (%1,3 eta %1,6, hurrenez hurren). Gainera, 2025ean Alemaniaren egoerak hobera egingo duela uste du, eta %1,0ko erritmoa lortuko duela, joan den urteko eta aurtengo ahultasuna atzean utzita. Aitzitik, Espainiak %2,0tik gorako hazkundera izango du berriro. Kasu honetan, erakundeak goranzko berrikuspena egin du: puntu bat 2024rako eta bi hamarren hurrengorako.

Txinari dagokionez, ELGak aurreikusi du hazkundera moteldu egingo dela, %4,9ra aurreko urtean eta %4,5era datorren urtean, kontsumo pribatuaren erantzun faltagatik eta higiezinaren sektoreko arazoengatik.

TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	II
BPG	5,7	2,7	2,8	2,5	2,2	2,1	1,8
Barneko azken kontsumoa	6,7	1,7	1,5	1,1	1,8	2,1	1,8
Familien kontsumoa	7,8	1,9	1,7	1,2	1,9	1,9	1,7
Administrazioaren kontsumoa	3,1	1,3	1,1	0,8	1,8	2,6	2,2
Kapital eraketa gordina	8,7	1,8	1,7	1,5	2,0	2,4	1,6
Barne eskaria	7,2	1,8	1,6	1,2	1,9	2,2	1,7
Esportazioak	13,7	1,0	1,5	0,3	-1,6	-2,0	2,1
Inportazioak	15,9	-0,2	0,0	-1,3	-2,0	-1,8	2,0
Lehen arloa	2,2	16,0	18,8	14,4	10,3	6,5	2,8
Industria eta energia	3,9	1,8	1,5	1,7	2,0	1,1	0,4
Eraikuntza	5,8	2,6	2,6	2,3	1,8	1,7	1,5
Zerbitzuak	6,7	3,0	3,2	2,6	2,2	2,4	2,3
Balio erantsi gordina	5,9	2,8	2,9	2,5	2,2	2,1	1,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,4	1,7	1,4	2,0	2,2	2,2	2,1
Enplegua	2,9	1,9	1,8	1,9	2,0	2,0	1,9

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

Abuztua

2023						2024					
Irail.	Urri.	Azar.	Aben.	Urtar.	Otsa.	Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.
88,3	88,4	86,0	83,1	83,6	82,0	84,5	91,4	97,4	99,3	96,4	95,9
X<50 Atzeraldia				50<X<100 Hazkunde leuna				X>100 Hazkunde bizia			

EAEko ekonomiaren termometroa 95,9an kokatu zen abuztuan, eta azken hilabeteetako goranzko joerarekin amaitu zen, baina hazkunde sendoko eremutik gertu eta urte hasierako erregistroen gaitetik mantendu zen. Europako industriaren koiunturak ez du hobera egiten eta ez du euskal industriaren dinamismo handiagorik ahalbidetzen; eraikuntzak eta zerbitzuek, aldiz, jarduera maila biziagoa dute, kontsumoak bezala, eskariaren aldetik, nahiz eta zerbitzuen kasuan hazkundera leundu egin den enplegu zifren moteltzearekin.

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

EKAINEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024			2024	2025
	II	III	IV		
BPG	1,9	2,0	2,1	1,9	2,1
Barneko azken kontsumoa	1,8	2,0	1,9	1,9	1,9
Familien kontsumoa	1,7	2,0	1,9	1,8	1,9
Administrazioaren kontsumoa	2,5	2,0	2,0	2,3	2,1
Kapital eraketa gordina	2,1	2,6	2,9	2,2	2,4
Barne eskariaren ekarpena	2,0	2,2	2,2	2,0	2,1
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,2	-0,2	-0,1	-0,1
Lehen arloa	2,0	-0,4	1,8	0,7	3,0
Industria	0,5	1,0	1,3	0,7	1,6
Eraikuntza	1,7	1,7	1,6	1,8	1,8
Zerbitzuak	2,3	2,4	2,4	2,3	2,2
Balio erantsi gordina	1,9	2,0	2,1	1,9	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,8	1,9	2,1	1,9	2,1
Lanaldi osoko lanpostuak	1,8	1,7	1,9	1,8	1,6
Landunak (BJA)	1,3	1,3	1,1	1,4	1,1

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
BBVA	2,3	2,5	Hispalink (BPGaren aldakuntza)	2,0	2,4
Funcas	2,3	—	Confebask	2,0	—
Ceprede	2,1	1,9	Eusko Jaurlaritza	1,9	2,1
Laboral kutxa	2,0	—			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	II
BPG	6,2	2,7	2,4	2,2	2,3	2,5	3,1
Kontsumo pribatua	4,9	1,7	0,9	1,3	3,0	2,2	2,5
Kontsumo publikoa	0,6	5,2	6,0	6,4	5,0	5,1	4,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	2,1	1,7	0,3	4,7	1,9	2,2
- Aktibo finko materialak	2,2	2,4	1,9	0,3	4,8	1,4	2,6
- Eraikuntzan	2,2	3,0	3,2	0,0	3,9	1,7	2,5
- Ekipamendu ondasunetan	2,9	1,1	-0,7	0,4	6,3	0,6	2,6
- Jabetza intelektualaren produktuak	7,7	1,0	1,0	0,4	4,1	4,1	0,6
Nazio eskaria (ekarpena)	3,9	1,7	1,1	1,6	2,7	2,2	2,4
Esportazioak	14,3	2,8	1,8	0,0	0,7	1,5	2,6
Inportazioak	7,7	0,3	-1,5	-1,3	2,3	0,7	0,9

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
Oxford Economics	2,8	2,0	BBVA	2,5	2,1
Citigroup	2,8	2,0	FUNCAS	2,5	1,8
AFI	2,8	2,1	La Caixa	2,4	2,3
Capital Economics	2,7	2,6	CEPREDE	2,4	2,5
CEOE	2,7	2,0	HSBC	2,3	1,8
Econ Intelligence Unit	2,7	2,2	S&P Global Ratings	2,2	1,9
Moody's Analytics	2,7	1,9	UBS	2,2	1,9
Barclays	2,6	1,6	Batez bestekoa	2,5	2,0
Grupo Santander	2,6	2,0	Gobernua (2024-07)	2,4	2,2
Inst. Estud. Económicos	2,6	1,9	Espainiako Bankua (2024-09)	2,8	2,2
Repsol	2,6	2,0	Europar Batzordea (2024-05)	2,1	1,9
Societe Generale CIB	2,6	1,5	NDF (2024-07)	2,4	2,1
S&P Global Market Intel	2,6	1,7	ELGA (2024-11)	2,8	2,2

Iturria: Consensus Forecast.



ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	II
AEB	1,9	2,5	2,8	3,2	3,2	2,9	3,0
Txina	3,0	5,2	6,3	4,9	5,2	5,3	4,7
Japonia	1,0	1,9	2,0	1,3	0,9	-1,0	-0,9
Kanada	3,8	1,2	1,3	0,7	1,0	0,6	0,9
Europar Batasuna	3,3	0,4	0,5	0,1	0,4	0,7	0,8
Eurogunea	3,3	0,4	0,5	0,0	0,2	0,5	0,6
Alemania	1,4	-0,3	0,1	-0,3	-0,2	-0,1	0,0
Frantzia	2,6	0,9	1,3	0,9	1,3	1,5	1,0
Erresuma Batua	4,3	0,1	0,2	0,2	-0,2	0,3	0,9
Italia	4,7	0,7	0,6	0,6	0,7	0,6	0,9
Herbehereak	5,0	0,1	-0,5	-0,9	-0,6	-0,7	0,6

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2024KO IRAILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
AEB	2,5	1,7	3,0	2,2	4,1	4,4
Japonia	0,0	1,2	2,5	2,1	2,6	2,4
Kanada	1,1	1,8	2,6	2,1	6,4	6,7
Europar Batasuna	1,0	1,5	2,5	2,1	—	—
Eurogunea	0,7	1,3	2,4	2,0	6,5	6,5
Alemania	0,0	0,8	2,3	2,1	6,0	6,0
Frantzia	1,1	1,1	2,3	1,8	7,4	7,5
Erresuma Batua	1,0	1,2	2,6	2,4	4,4	4,5
Italia	0,8	0,9	1,2	1,8	7,1	7,0
Espainia	2,5	2,0	3,0	2,1	—	—
Herbehereak	0,4	1,4	3,3	2,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.